

noaua



KONTZERTU GAUA AGINAGAN

Rukula, Zaparra eta Loita Armada galiziarrek Eliza Zaharrean arituko dira larunbat honetan / 06-09

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Asteburu honetan hasiko da Usurbilgo 51. Pilota Txapelketa / 11



NOAUA

Udalak eta Botikarien Elkargoak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute / 15



NOAUA

Maddi Orbegozo: "Euskal Selekzioan ni naiz Usurbilgo neska bakarra" / 18



NOAUA

Pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da Andatza Egunean / 22



Rumania


IRTEERA 2024ko iraila

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

nooaa

jarraitu gure sare sozialak



www.nooaa.eus



GIPUZKOA BERTSOTAN 24

2. FASEA

USURBIL

Maiatzak 26, igandea, 17:00

Sutegi Aretoa

Antolatzailea:



Laguntzailea:



www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Aginagan, ere tipi-tapa

Duela bi astetik abian den "Goazen kalera" dinamika Usurbilgo auzo eta herrietan barrena dabil. Apirilaren 16an Kaxkoan egin zen estreinakoz. Iragan astean, Aginagan barrena ibili ziren.

Duela bi astetik abian den "Goazen kalera" dinamika Usurbilgo auzo eta herrietan barrena dabil. Apirilaren 16an Kaxkoan egin zen estreinakoz. Iragan astean, Aginagan barrena ibili ziren. Segidan duzue hango eskolatik helarazitako irudi eta hitzak. Maiatzaren 7an Santueñean, hilaren 14an Usurbilgo Kaxkoan, maiatzaren 21ean Usurbilgo Kaxkoan (ekintza berezia), ekainaren 4an Zubietan eta ekainaren 18an Usurbilgo Kaxkoan egingo diren ibilaldiotan parte hartzeko

aukera izango du herritar orok, aurrez izena eman beharrik izan gabe.

Aginagako Eskolaren kronika
"Eguraldi txarra...nork esan du hori? Mordoxka elkartu ginen eta tipi tapa Mapileraino iritsi ere bai. Bidean erronka bota ziguten jubilatuek: "Zenbat piper daude sail honetan?" Estimazio zaila...17.000 omen! Sagarrondoak loretan, patata hazten, koko fibrekin hazitako landareak, angula eta gulen istorioak, mendi



'Goazen kalera' dinamikakoak Aginagan barrena ibili ziren iragan astean.

puntara barkua igo zutenen kontakizunak...eta bide erdian, Mapilen zain Maritxu! Alarekin garai batean arrantza nola egiten zuten kontatu zigun. Ondoren, baserriko txokora pasarazi eta bertan bere margolanak erakutsi zizkigun. Artista dugu Maritxu, gero!

Zaparrada eta zaparrada artean Elutxetik egin genuen buelta eskolaraino eta bertan hamaiketakoari gogotsu egin genion haginkada, gorputzak berotan sartzen zitzaizkigun bitartean. Ekimen polita, balorazio bikaina eta hurrengorako gogotsu!".

Garbigune mugikorra, Usurbilgo kaxkoan

Maiatzaren 2tik aurrera, garbigune mugikorra Mikel Laboa plazan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Maiatzaren 9an garbigune hau Aginagara eramango dute.

1964an jaiotakoen bazkaria ekainaren 1ean izango da

Bazkaria Atxega jauregian egingo da. Izen-emateko epea ere finkatu dute; maiatzaren 15era arte 647 458 997 telefono zenbakian (Mari Jose). Telefono zenbaki horretara deituta jaso egin nahiz hitzorduari buruzko argibide gehiago.

41. Sagardo Eguna maiatzaren 19an ospatuko da

Badator usurbildarren festa kuttunena. 41. Sagardo Eguna maiatzaren 19an izango da.

Ohi bezala, baserriko zein sagardotegi ezberdinetako edariak dastatu ahalko dira, Sagardo Egunaren Lagunak taldekoen eskutik.

"Smart Farming" proiektuaren aurkezpena

"Optimizatu ura eta hobetu zure produktzioa" proiektuagaratzen ari dira Zubigune eta Asmoz Fundazioa. Haren aurkezpena egitera etorriko dira, maiatzaren 9an, 18:00-19:00 artean Potxoenean. "Helburu du lehen sektorean erabiltzen den uraren eraginkortasuna hobetzea".

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpuru.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Azalaldatzen (7)

Gaindosia. Horiesanzuen autopsiak. Gaindosia. Nor hil daiteke sagardo gaindosi batengatik? Kiratsa zerion kontuari, eta hitza errepikatzen zitzaidan: gaindosia, gaindosia, gaindosia. Atxur, legatz edo egundoko mozkorra gauza bat ziren; bestea, koma etiliko itzulera gabea.

Inoiz ez naiz izan detektibea, ñabardurei erreparatzekoa bai. Sagardotegien monopolioaren aurkari izateko motiboak bilduta neramatzan bizkarrean ordurako.

Eta azalaldatze guztiak direnez zerbaitenak, hau, idazle gezurtiarena.

Magiak nola funtzionatzen duen edonork daki. Arreta beste norabait joaten zaio ikusleari, eta fokutik kanpo egiten ditu egin beharrekoak ikuslearen lilura bilatze aldera. Sagardoa intoxikatzen zutela izan zen nire lehen hipotesia, baina erratuta nengoen. Hori zen guk pentsatu nahi genuena, eta intoxikazioak hamaika argudioren bidez deusezta daitezke: kanpotik ekarritako sagar txarren bat nahigabea sartu zela, edaleke zekiela edaten, eguraldiak ez duela lagundu sagar-uztan, eguraldiak ez duela lagundu sagardoaren gorpuztean. Eta gu horren tontoak, txintik esan gabe sinesten dugu. Zeren bertako produktua da, zaindu behar dugu, kontsumitu beharra daukagu.

Idazle izatearen aitzakian joan nintzen herriko sagardotegi batera. Zeinetara? Horrek ber-

din dio. Haren atzetik gainerako guztiak bisitatu nituen. Sagardoaren munduan girotutako nobela bat neukala buruan, eta ea hango jarduna erakutsiko zidaten. "Argitaratuz gero, irakurriko diat!". Halaxe erantzun zidaten guzti-guztiek, bai eta sagardotegi barrura gonbidatu ere.

Sagarra kixkiarekin bildu behar dela, sagarra lehertu gero —txalapartarena handik etorriko ote, susmoa airean utzita—, tolaean pilatu eta prentsatu... eta han dator zuku gozoa. Hura kupeletara isuri, eta denborak egingo du ondorengo magia guztia. Magia bai! Han barruan begiak ezin sartu, eta hantxe amaitu zuten sagardogile guztiak euren sermoia.

Den-denei galdetu nien ea kupel barruan egonik ez ote zuten prozesuan esku hartzen. Eskandalizatu egin zitzaizkidan. Egunero probatu, baina horrez gain, ezer. Usainak, koloreak eta zapoak eman bide dute gorpuzkeraren berri. Aurrez nekiena errepikatzen zuten, eta nik muturra sartu nahi nuen kontu hartan guztian. Proba ote nezakeen galdetu, eta bizkarraldea besoarekin inguratuta, kupelategi-

"SAGARDOAREN MUNDUAN GIROTUTAKO NOBELA BAT NEUKAN BURUAN"

ra eraman ninduten. Ziria sartu nahi zidatela susmatu nuen, baina tira, idazle gezurtiaren mozorroa mantendu behar nuen. Kupel bakoitzekoa probatu aldiro, zer moduz?, eta niri guztiak antzeko zitzaizkidan. Ezin esan halakorik, ordea. Ñabardurei erreparatzeko trebezia horri zukua atera beharko sagardogileak sagarrari atera nola, ezta?

Bigarren goa laugarrena baino motelagoa zela esatera ausartu nintzen. Zer edo zer erantzun behar zidan oker nengoela adierazteko, eta nik arrazoia eman beste aukerarik ez. Aitortzen dut pixka bat izorratu zidala, baina nire asmoak ezin hola eta hola argitaratu. Tradiziozko oihal haren atzean zegoenaren bila nengibilen, eta azkura txoro baten gatik ezin dena zapuztu.

Dastaketarekin amaitu zen bisita. Nik nahikoa ez, eta oraindik zera edo bestea ikusi ez nuela purrustan bota nien. Beste batean beharko zuela, edukazioz, lanpetuta omen zenbiltzan eta. Istoriaren balizko laburpenak asmatu nituen bat-batean: western estiloko zerbait izango zela, trikiti munduarekin zerikusia izango zuela, eskalataleak izango zirela protagonistak... Limurtu nahi, baina erabateko porrota.

Halere, guztiak erantzun bera eman zidaten: gehiago jakitekotan, Jakoba Errekondori galdetzeko, eta hark argituko zidala.

Aho-hortzetako osasunari buruzko saioak

Hortz kliniketako higienista izateko ikasten ari da Moraysys Silva Rodriguez usurbildarrak Easo Politeknikoan eta gradu amaierako proiektuaren bitartez, usurbildarren aho-hortzetako osasuna hobetzen lagundu nahi du beste hiru kiderekin batera. Ostiral honetan, Udarregi Ikastolan izango dira eguneko lehena 14:45ean. Solasaldi hori haur eta gazteei zuzendutakoa izango da. 18:30eko saioa Emakumeen Etxean izango da eta helduei eskainia izango da.

Sendabelarrei buruzko bi saio

Maiatzak 18, larunbata

• 10:00 Sendabelarren identifikazioa eta bilketa, Txokoaldeko Txokoargi elkartetik abiatuta, Leire Lazkanoren gidaritzapean. Gehienez ere 12 lagunentzako tokia egongo denez, izena aldeztu aurretik ematea komeni da.

Prezioa: 10 euro.

Izen-ematea: 619 591 849.

Antolatzailea: Txokoargi.

• 17:30 Sendabelar-tailerra: Etxerako garbitasun produktua Santuenea 12an. "Etxerako erabiltzen ditugun garbitasun produktuen osaera zein den aztertu eta aukera jasangarriagoak erabiltzen saiatuko gara".

Prezioa: 10 euro (elkarteko bazkideek 7 euro).

Izen-ematea: 670 027 731.

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte.

ASTEAZKENA

OSTEGUNA


OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA

ASTELEHENA

ASTEARTEA



Gipuzkoako arazo nagusiak eta garrantzitsuenak Batzar Nagusietarako eta Foru Aldundirako

EUSKADIKO ANGULERO ELKARTEA E.A.E.

2023ko irailean, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Elkarrekin Podemos alderdi politikoak egindako azterketa zehatz, landu eta zehatz bat egin ondoren, EH Bilduren baldintzarik gabeko babesarekin eta EAJren oniritziarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiari Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean idatzi eta argitaratzeko eskatu zioten, gehienez ere lau hilabeteko epean, Gipuzkoako aingira berreskuratzeko plan integrala.

Lurralde Oreka Berdeko foru diputatuak, 2024ko otsailaren 20an, honako foru agindu hau sinatu zuen: 0064/2024 Foru Agindua, 2024-2034 aldirako Europako Aingira Berreskuratzeko Plan Integrala onartu eta argitaratzen duena.

Foru Aldundiak Gipuzkoan Interes Talde izendatu zuen elkarte hau, 2022an aingira berreskuratzeko plan bat bidali ondoren, "lagundutako migrazioa" izenekoa, gaien dugun interesa eta kezka erakutsiz, ez zaigu kontuan hartu, eta, gainera, foru-aginduari helegitea aurkeztu behar izan diogu.

Frogatuta geratu da Podemosek eta EH Bilduk angula erabiltzen dutela hautetsontzietan duten errentagarritasun politikorako, angularen arrantza debekatzen dutela, baina eskura dituzten baliabide guztiekin Orian habitata suntsitzen laguntzen dutela, besteak beste, Orbeldiko urtegiaren mantentze-lanetan oinarritzen den ur suharren kanal bat sortuz. Horrek esan nahi du "Oztopoak Iraizteko Plan Zuzentzailearen" aurka joatea, eta Oriako uraren fluxu naturala aldatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak orain aingira berreskuratzearekin kezkatuta dagoela sinestarazi

nahi digu, eta, inolako lotsarik gabe, interes publikokotzat jotzen du Usurbilgo ur suharren kanalaren plana, erabat pribatua baita.

Era berean, ikus daitekeenez, ur suharren ubidearen proiektua Oria ibaiaren habitatean, eta horrek ur hori suntsitzea dakar.

Aipamen berezia da Usurbilgo EH Bilduren jarrera, esaera jakintsuak dioen bezala, "bere ekintzengatik ezagutuko dituzue". Ur suharren kanala eraikitzeke inplikazioa, lankidetzeta eta baldintzarik gabeko babesa erakutsi ditu. Baina, neurri horrek ez al du eraginik izango aingiran eta bere habitatean? Lehenik eta behin, espeziea salbatzen saiatzeko borrokarekin bat egiten du, arrantzaren erabateko debekua bezalako neurriak hartuz eta babestuz, baina orain espezieari modu larriagoan eragingo dion ur suharrak eraikitzeke proiektua babesten du.

Zuek ondo dakizuenek habitataren gaineko

zuzeneko jarduera hau, baita Oria ibaiaren emariari buruzkoa ere, EB 1100/ 2007 Erregelamenduaren aurka doa, zuek, hitzartu dituzuenen, nahitaez betetzat jo duzuenen.

Gogoratzen diogu, bere gogoz kontra, bi gauzak eman diotela ospea Usurbili, ETA LAS ANGULAS ETA SAGARDOA direla, baina, zehazkiago, AGUINAGA auzoan Gipuzkoa osoaren erreferentea eta Euskadiren hedaduraren arabera. Bere jarrera eta gertakariak aurreko garaietara garamatzate, Euskal Herria, bere ohiturak eta tradizioak menperatzen saiatu zirenean, orain Gipuzkoako anguleroekin egin nahi den bezala, EH Bildu eta Podemosen aldetik.

Beraz, norbaitek konpontzen ez badu, horixe gertatuko da Usurbilen ere, Gipuzkoako talde politikoen oniritziarekin.

Gezurretan jarraitzen duzue, baina ez gaituzue eginaizten.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus

Usurbilgo jaien inguruko bi deialdi

Txupinazoa

Santixabelei ekainaren 28an udaletxeko balkoitik hasiera nork eman erabakitzeke herriarren ekarpenak bilduko ditu Jai Batzordeak, aurreko urteen antzera, apirilaren 22tik maiatzaren 24ra arte. Txupinazoa nork eta zergatik jaurti behar duen, proposamenok egiteko bi modu izango dituzue: kultura@usurbil.eus helbidean edo udaletxean, liburategian, kiroldegian eta Potxoenean jarriko dituzten kutxetan.

Egitarauaren diseinu lehiaketa

Egitaraua diseinatzeke txapelketa ere abiaraziko dute hilaren 22an. Lanak udal erregistroan aurkeztu beharko dira, maiatzaren 24a baino lehen. 500 euroko saria eskuratuko du irabazleak. Oinarrien berri bideotatik jaso dezakezue: usurbilkultura.eus / 943 371 999.

Diseinu lanari dagokionez, ohi bezala, lehenbizi Potxoenean egitarauko testua eskuratu beharko da edo bestela kultura@usurbil.eus helbidean galdegin.

Testu horretan oinarritu beharko da sortze lana, euskaraz, neurri librea. Udalaren logoa erantsi beharko zaio. Lanak paperean eta euskarri digitaletan (CD edo pendrive batean, PDF formatuan) aurkeztu beharko dira, bi gutunazaletan. Bietan egilearen izen goitia, A edo B gutunazala den eta "Santixabel egitarauaren lehiaketa" adierazi beharko da. Kartazaletan eta B kartazaleko dokumentazioan "izen goitia ez den beste izenik erabiltzen bada identifikatzeko, eta izen horrek parte-hartzailea zein den jakiteko bidea ematen badu, parte hartzaile

hori lehiaketatik kanpo geldituko da".

A gutunazalean, "aurkezleari buruzko datuak bilduko dira: izen-abizenak edo taldearen izena, IFZ/IFK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa eta hura identifikatzeko behar den beste edozein datu". B gutunazalean, "proposatzen den diseinua joango da, euskarri digitaletan eta paperean".

Lanak udal erregistroan aurkeztu edo postaz bidali: Usurbilgo Udala, Kultura Saila: Joxe Martin Sagardia plaza.z.g.;20170 Usurbil.

Informazio gehiago: 943 377 199 / kultura@usurbil.eus



Rukularen hiru sorkuntza lanetako abestiak entzuteko parada izango dute larunbateko kontzertuan.

"Guretzako ohorea da halako espazio batean jotzea"

OIHAN AGIRRETXE RUKULA MUSIKA TALDEKO KIDEA

laz kaleraturiko "Traganarru" hirugarren diskoarekin bueltan datoz Rukulako kideak larunbatean Aginagako Eliza Zaharrera.

Hamar urteko ibilbidea jorratua duen Rukula bueltan datorkigu, oraingo honetan, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunerara. Urteotako hiru disketako abestiak entzungai izango ditugu maiatzaren 4an, 22:30etan hasiko den kontzertu gauean. Hurbilekoak dituzten Zaparra herrikideekin eta Loita Amada galiziarrekin partekatuko dute oholtza.

laz aurkeztu zenuten "Traganarru", zuen hirugarren lana. Nola deskriba dezakezue sorkuntza lan hau?

Diskoa Garate estudioetan grabatu zuen Martxel Arkarazo taldekideak. Azken bi diskak analogikoan grabatu ditugu, denok elkarrekin. Saiatzen

gara diskan ordezkatzeko guk zuzenean egiten duguna. Uneotan, taldekideok honako hauek gara: Oihan Agirretxe bateria, Martxel Arkarazo baxua, Jon Agiriano kitarra eta Josu Furundarena beste kitarra. Hala ere, diskoan kitarrik Aitor Pagolak eta Jon Agirianok grabatuak dira. Sorkuntzari dagokionean, traganarrua

"HELDUTASUN PUNTU BATERA HELDU GARA DISKO HONEKIN, OSO POZIK GAUDE EMAITZAREKIN"

marinelek beldurra zioten itsasoko izaki mitologiko bat da. Diskak, soinuaren aldetik, horrekin lotura duela esango genuke. Une lasaiak ditu eta oso une bortitzak ere bai. Beste diskoekin alderatuta, teknikoagoa da. Zati handi bat covid garaian konposatu genuen, etxetik, bakoitzak bere ordenagailuarekin. Erritmo

"ZORTE HANDIA IZAN DUGU, KONTZERTU, LEKU ETA JENDE PILOA EZAGUTU DUGULAKO"

tribalak, dantzagarriak ditu, baina bati zati teknikoagoak ere. Abesti batzuk bukatzen direnean, eduki izan dugu pantaila pasatzen dugunaren sentsazioa. Iruditzen zaigu heldutasun puntu batera heldu garela disko honekin eta oso pozik gaude emaitzarekin. Diseinua Ibai Arrietak egin zigun.

Zer nolako hartuemana izan du lan berriak publikoarekin?

Oso pozik gaude orohar izandako harrerarekin, eta nola ez, usurbildarrek eman diguten babesarekin. Harrera oso ona izan du. Zorionekoak sentitzen gara Usurbil inguruan dagoen musika komunitatearekin, musikarekiko sentsibilizazioarekin. Usurbildarrak beti etorri izan dira kontzertuetara gu babestera eta, horregatik, pozik gaude Aginagan joko dugulako. Udal baliabide aldetik ere beti sentitu dugu babesa. Rukulak funtzionatzen segitzen du hasierako filosofia berarekin. Gu saiitzen gara publikoarekin ahalik eta gehien konektatzen. Horretarako, askotan lurrean jotzen dugu, publikoarekin ahalik eta gertuen egoteko.

Parez pareko harremana sustatu nahi duzue zaletuekin.

Lurrean jotzeak ahalbidetzen du maila berdinean egotea eta denon artean une polit bat sortzea. Filosofia horrekin jarraitzen dugu. Halere, egokitzen gara edozein leku eta beharrezanetara.

10 urte bete ditu taldeak. Zeintzuk izan dira Rukularen ibilbidea baldintzatu duten mugarri nagusiak?

Zorte handia izan dugu Rukularekin kontzertu piloak eskaini, leku eta jende pilo zoragarria ezagutu ahal izan dugulako, beste modu batean seguruena ezagutuko ez genukeena. Hasiatik geneukan izaera mantentzen saiatu gara, erritmo dantzagarri horiek, publikoarekin konexio hori,

→ rock puntu indartsu hori mantendu dugu. Bide horretatik jarraitzen saiatuko gara aurrerantzean ere. Egia da, batzuetan zaila da arlo pertsonala, profesionala eta taldea uztartzea, baina beti mantendu izan dugu presente taldea. Ez dugu presarik ezertarako. Gure helburua da bidez, musikarekin gozatzea eta leku eta jende berria ezagutzea.

Rukula zuentzat, zuen bizimoduko beste konpartimentu natural bat da ezta?

Hala esango nuke. Neure nor-tasunaren parte bada behintzat. Asko ikasi dut Rukularekin. Elkargune bat da ere. Beti esan izan dugu, terapia moduko bat ere badela taldea. Azkenean, astean zehar gure ohiko bizitzetatik pixka bat aldendu, lokalera joan eta gure lagunekin musikaz gozatzeko aukera izatea, bada terapia antzeko bat. Asko lagundu digu musikak ere.

Zuen askotariko izaeradun abes-tiek, jende multzo zabalagoarengana heltzeko bide izan dira?

Baietz esango nuke. Rukula taldekideok dugun berezitasunetako bat da, oso mundu ezberdinetatik gatzela, musika zaletasunei, Rukula aurretik izandako ibilbide musikari edota gure lan eta bizi estiloei dagokienean, oso ezberdinak gara. Aipatzen dugunean Rukula bera koktelera bat dela, esango nuke, taldekideon artean ezberdinak garelako ere badela eta gero kantetan isladak baduela gu garen horrek. Musikak batzen gaitu eta hori kantetan ere islatua ikusten da. Pozgarria da, azkenekoz egon ginen Zumaian jotzen. Karpa betea zegoen. Jende ezberdin hori ikusten zen publikoan, asko gazteak, helduak ere. Aniztasun handia zegoen publikoan eta denen arteko giro ona. Gure kontzertuak denontzako espazio seguru bezala eraiki nahi ditugu.



Rukula musika taldeak larunbatean joko du Aginagako Eliza Zaharrean.

Aginagako kontzertura joango denak zer da Rukularengan ikusi eta entzun ahalko duena?

Ez du Rukula bakarrik ikusiko. Aginagako polita izango da. Zaparrak ere joko du. Gure lagunek disko berria aurkeztuko dute. Gogo handia dugu haiekin oholtza partekatzeke. Berezia izango da, Usurbilek beti izan du musika komunitate indartsu bat eta larunbatean, komunitate horretako bi musika talde egongo dira. Bestalde, Galizako Loita Amadak joko du. Bertan, besteak beste, Jasperrek parte hartzen du. Usurbilekin harreman estua du. Izan ere, bere aurreko proiektuetan

"ELKARGUNE BAT DA ERE. BETI ESAN IZAN DUGU, TERAPIA MODUKO BAT ERE BADELA TALDEA"

Kaki Arkarazorekin izan du harremana eta Garate estudioetan Nao taldearekin grabatu izan du. Usurbilen egon izan dira. Konexioa badago Galiza, Euskal Herria eta Usurbil artean, nahiko indartsua dena. Besteak beste, guk, Rukularrok Galizan izan ginen duela gutxi. Bira egiten ari dira, gu han izan ginen moduan, Aginagra etorriko dira orain. Diska aurkeztera datoz. Seguru, giro ederra izango da Aginagako Eliza Zaharrean. Proiektu horretan dabilen jendeak lan handia egin du, gogo eta ilusio handiz. Guretzako ohorea da halako espazio batean jotzea, elkargune

"ETORKIZUNERA EZ DUGU ASKO BEGIRATZEN, BAINA GUSTATUKO LITZAIGUKE KANPORA JOATEA"

horri babesa emateko modu bat ere bada bertara joatea. Gu eskertuak, espero dugu gu gau polit bat pasatzea. Hemen, eskerrak eman Aginagan bolondres lanetan halako arnaguneak eraikitzen ari den jendeari. Aginagan egiten diren moduko proiektuak babestu egin behar dira eta eskertu.

Sortzen jarraitzen duzue?

Bai. Ideia piloa dugu. Badugu aurreikusia etorkizun batean beste disko bat grabatzea, baina presarik gabe. Ez zaigu erraza egiten ari une honetan, jarraikortasun batekin entsegu dinamika potente bat izatea. Bagabiltza lanean, ideiak baditugu baina gure gorputzei eta bakoitzaren uneei entzunez segi nahi dugu, elkar zainduduz. Etorriko da etorriko dena. Gainerakoan, disko hau aurkezten segiko dugu. Oraindik asko dugu eskaintzeko. Lekuetatik deitzen ari da jendea. Besteak beste, Aramaion, Igeldon, Zumaian, Erreterian, Baionan... izango gara datozen hilabeteetan.

"Bidez gozatzea da gure helburua"

Nola proiektatzen duzue etorkizuneko Rukula?

Rukularen diskoetan eta soinu bilakaera nabarmentzen da, baita gure funtzionamenduan eta gure gauzak kudeatzeko moduan ere. Hasieran, kontzertu piloa jotzen hasi ginen eta horrek, nola ez, nekutzen du. Une honetan, elkar ulertze eta zaintza horretan gaude gehiago. Presio handirik gabe, bidez gozatzea da dugun filosofia eta horrek ahalbidetzen du proiektuak denbora luzez irautea. Horretan jarraituko dugu. Etorkizunera ez dugu asko begiratzen, baina gustatuko litzaiguke kanpora joatea, konpainia ederrean elkarrekin bidaiatu, lekuak ezagutu eta hori dena musikaren bidez gitea.



Zaparra taldekoak, Garate Estudioetan grabaketa amaitu ostean.

“Orain sortu zaigu lan borobilagoa egiteko gogoa”

JON MIKEL AZPIAZU ETA ENDIKA LARRAÑAGA ZAPARRA TALDEKO KIDEAK

Martxoan sartzearekin batera atera zuen Zaparra taldeak “Azalberritzen” izeneko lehen diskoa. Asteburuan kontzertua eskainiko dute Aginagako Eliza Zaharrean.

NOAUA! Diskoa atera berri duzue, “Azalberritzen”, lehen lan hartatik sei urte pasa berritan.

Lehen diskotzat jotzen dugu Azalberritzen. Maketatxo bat grabatu genuen, eta Garate Estudioetan abesti batzuk grabatzen ere aritu ginen, baina gure lehen lan sendoa atera berri duguna da. Lehendabiziko lanak Haranen grabatu genituen Irungo maketa lehiketa irabazita lortutakoarekin. Gerora, Garaten lau abesti grabatu genituen, baina ez genuen diskorik atera. Esperimentzia izan zen guretzat. Ondoren, etenalditxo bat egin genuen lau bat urtekoa. Pandemiak ere harrapatu gintuen eta oso geldirik egon ginen

garai hartan. Orain hasi gara lanean berriz, eta grabatzeaz gain, diskoaren diseinua, abestien hautaketa, kamisetak eta halako guztiakin lan egin dugu. Hauxe izan da gure lehen proiektu osoa. Ez dugu uste inor izugarritzko sorpresaz hartu duenik.

Nolatan etorri da lehen lana bederatzi urteko ibilbidearen ondoren?

Gorabehera handiak izan ditugulako. Sortu ginen momentutik plazan eta zuzenekoan jarri genituen indarrak eta horretan aritu gara burubeldarri. Euskal Herriko leku askotan jotzeko aukera izan dugu sortu ginenetik. Hasieran, orain-

dik ikasketak egiten ari ginen eta gure lantxoaren orduan. Musikaz gozatzea erabaki genuen eta lan sendoak egitearena nahiko alboratuta izan dugu. Orain sortu zaigu lan borobilagoa egiteko gogoa. Inflexio puntu bat izan genuen duela urtebete, uztekoan egon ginen eta bi aukera planteatu

“DUELA URTEBETE INFLEXIO PUNTU BAT IZAN GENUEN, TALDEA UZTEKOTAN IZAN GINEN”

genituen: taldea serio hartu edo utzi. Bi hilabete behin entseguren bat egiten genuen, eta oso utzita geneukan dena. Entseguetan elkartzean abestiak asmatzen hasten ginen, aurreko entseguan egindakoa ia ahaztuta geneukalako. Erabaki bat hartu beharra zegoen, eta horra urtebetera diskoa. Udan egunero entseguak egiten aritu ginen eta martxoan plazaratu genuen lana.

Lehen diskoa atera arte zer aritu zarete jotzen kontzertuetan?

Maketaz haratago kantuak bagenituen. Grabatu gabe geratu diren abesti batzuk ere badauzkagu zuzenekoan jotzen genituenak. Talde oro bezala, bertsio batzuk jota osatzen genuen jarduna, baina geroz eta abesti propio gehiagorekin. Lan berri honetarako abesti berriak prestatu ditugu, denak hutsetik hasita. Urte askotako prozesua izan da, eta gu ere aldatu egin gara bidean. Orain filtro gehiago jarri dizkiogu gure buruari.

Duela pare bat hilabete atera zenuen “Orbanak iruditan” aurre-rapen kantua.

Abestirik berezianari protagonismoa eman nahi genion. Ez da erraza esaten abesti horrek diskoa definitzen duela ere. Abestirik rockandrolleroena da, edo guk bilatzen genuen estilo horretara gehien hurbiltzen dena. Abesti gogorrakoak eta azkarrakoak ere baditugu.

Zortzi abestiz osatutako diskoa osatu duzue. Nola hautatu zenituzten zortzi horiek?

Azken data jarri genion geure buruari abestiak asmatzeko, eta horrainokoa hartu genuen. Sorkuntza prozesua Jon gitarjolearen ideietatik hasi genuen, eta abesti osoak baino gehiago zatiak edo ideiak izaten ditugu askotan. Haziak hark jartzen ditu gehien, eta horietatik atera dira diskoko abestiak. Askoz ere hazi gehiago baditugu, baina ez dira abesti osoak kasu gehienetan. Behin forma har-



Zaparra taldeko kideek atrezzoza baliatu izan dute zuzenekoetan.



"Taldea oro bezala, hasieran bertsio batzuk jota osatzen genuen errepertorioa".

→ tzen doazela definitzen ditugu, eta zortzirekin geratu ginen. Beste bat ia-ia amaitu genuen, baina ez dugu diskoan sartu. Driven daukagu hori beste askorekin batera eta agian, noizbait berreskuratuko dugu han daukagun materiala. Gu txien espero duzunean entzuten jarri eta berriz hartzeko gogoia ere ematen du. Batek daki zer gertatuko den abesti horiekin. Batzuetan hazi ezberdinak elkartuta osatzen ditugu abesti osoak.

John Wine abestian Pello Artaberen elkarlana izan duzue.

Eskean Kristo betidanik izan dugu gustuko. Pello Artabek uste zuen bertsio-talde bat ginela edo halako zerbaite. Usurbilen zale asko dituzte eta esan genien euren abestiren baten bertsioa jotzen genuela, eta horregatik izan liteke. Eskean Kristo erreferente bat izan da guretzat urte askoan eta bidea egin duela iruditzen zaigu rock-and-rolllean Euskal Herrian. Orain talde gehiago daude, baina garai batean ez zegoen ia besterik. Askotan atzerriko taldeak entzutera jotzen du jendeak, baina guk Euskal Herrian ere baditugu erreferenteak. Abestian parte hartzeko Martxel Arkarazoren bidez

lortu genuen lotura. Gure lana masterizatzen aritu zen, eta Pellorekin harreman handia duenez, asko erraztu zigun bidea. Martxeli ideia proposatu genion, abesti horretan Pelloren ahotsa oso egokia izan zitekeelakoan.

Sormen prozesua nola egiten duzue?

Jon Mikel arduratzen da abestiei hitzak jartzeaz, baina Endikak ere abestiren baten letra egin du. Alderdi instrumentalean Jon Guadix aritzen da gehiago eta hazia ere hortik etortzen da. Entseguetan laurok batera gaudenean, denboraposatzen dugu sormen lana denon artean egiteko, bestela etxeko lanekin ez dugu ondo funtzionatzen. Hala ere, onartu beharra dago zaila izaten dela beste batek egin duena ez zaizula gustatzen esatea. Errespetu falta txikitzat ere har liteke, baina esan beharra

"AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN KONTZERTUA IZANGO DUGU LARUNBAT GAUEAN"

dago eta esaten dugu, baina ez damomentu gozoa izaten. Modu afektiboan esan behar diogu, mindu gabe. Diskoan denoi gustatzen zaizkigun abestiak sartu ditugu. Kontzertuetarako batzuk horrenbeste ez zaizkigu gustatzen, baina agian, autoan entzuteko bai. Talde proiektua da eta erabakiak denon artean hartu behar ditugu.

Kontzertu denboraldi zabalagoa espero duzue orain?

Diskoa atera genuenetik ez gara gelditu, egia esan. Gazte Egunerako atera genuen, eta ordutik Antzuola, Asteasu, Zeanuri... Aginagako Eliza Zaharrean izango gara larunbatean. Bertan behera geratu zaigu baten bat, baina baditugu aurrerago ere kontzertu batzuk. Nahikoak dira, aste-buru batzuk libre izatea ere gustatzen zaigu eta baditugu bestelako egin beharrak ere.

"GORABEHERATSUA DA MUSIKA BAINA MOMENTU ONAK ERE EMATEN DITU ETA HORREGATIK SEGITZEN DUGU"

Urte hauetan egindako harreman sarea nahiko zabala da eta badakite diskoa atera dugula, eta horrek kontzertuak dakartza: "itzuli egin zarete!", esaten digute batzuek.

la bederatzirteko ibilbidea osatu duzue. Espero zenuten honaino iristea?

Honi buruz behin baino gehiagotan hitz egin izan dugu, eta elkarri galdetu diogu: zergatik egiten dugu hau? Oporretara joan beharrean lokalean orduak pasa, hurrengo egunean lana izanda entsegatzen egon goizeko ordubata arte.. Sentsazio hori izaten dugu batzuetan, baina beste momentu askok bete egiten gaituzte. Emozionalki oso gorabeheratsua da halako zaletasunak izatea eta denbora ere eskatzen du. Hala ere, momentu oso onak ematen ditu eta horregatik jarraitzen dugu honetan. Ez dugu ezer pentsatu aurrera begira. Lan bat egin nahi genuen, egin dugu eta orain horren inguruan dantza egin nahi dugu. Aldi berean, diskoan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu Garate Estudioetako langileei, diskoko kolaboratzaileei, lagunei eta senitartekoei.

Antxeta
 TABERNA
 egunero irekitzen dugu!
 eguneko menua · asteburuko menua
 oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
 paellak enkarguz!
 943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENE taberna
 Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
 taberna
Pintxo Bereziak
 943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
 Eraikuntzak
 urdaintzi@euskalnet.net
 IT-ak egiten dira
 649 43 54 75
 943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Olatz Salvador eta bere osaba Iñaki zuzenean arituko dira Sutegiko auditorioan.

Ostiral honetan, Salvadortarren kontzertua Sutegin

Familia artean izeneko ikuskizuna arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Sarrerak usurbilkultura.eus atarian eskura daitezke.

"Familia artean" kontzertua eskainiko dute Olatz eta Iñaki Salvadorrek ostiralean, maiatzaren 3an, 19:00etan Sutegin. Jexux Artze K.E.-k eta Udalak antolaturiko kontzerturako sarrerak aurrez eskuratu ahaliko dituzue 8 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman. Jexux Artze zendu zeneko 21. urtemuga egunerako programatu dute hitzordu hau. Bere omezez udaberri partean egin izan den zikloa edota azken urteotako Txalaparta Eguna udazkenera atzeratzea erabaki du aipatu kultur elkarteak.

Kultur arloko dirulaguntzen ebazpenak

Apirilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zituen ebazpenok Usurbilgo Udalak. Alegazioak aurkezteko hamar lan eguneko epea zabaldu zuten biharamunean. Sei eskabide aurkeztu zituzten kultur sorkuntzarako egitasmoetara; guztira, 14.998,90 euroko udal laguntza jasoko dute proiektuok. 26 izan ziren, bestalde, kultur egitasmoen deialdira aurkezturiko eskabideak. 94.948,51 euroko la-

guntza eman asmo du guztira Udalak.

Otsailaren 16an itxi zuen Usurbilgo Udalak dirulaguntza lerro gehienetara eskabideak aurkezteko epea. Baina oraindik orain, zenbait lerroetara eskabideak aurkezteko epeak irekita egoten segitzen du. Ekintzaileentzako Kabine elkartearen urtebeteko egonaldia egiteko Hasiz Hazi beka deialdian, hutsik diren merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berri bat abiarazteko ekintzaileentzako dirulaguntza deialdian edota norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntza deialdian parte har daiteke. Xehetasunen berri, urtarrilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso dezakezue.

Yolanda Arrietarekin solasaldia udal liburutegian

Maiatzak 8, asteazkena

• 18:00 Irakurketa solasaldia LH6ko gaztetoentzat, Yolanda Arrietaren eskutik. Mariasun Landaren "Galtzerdi suizida" liburua hartuko dute ahotan. Aleak eskuragarri liburutegian.

Helduentzako tertulia filosofikoa

Usurbilgo OinHerri eta Jakinmin elkarteak antolaturiko saioa maiatzaren 17an, 18:30-20:00 artean Potxoenean. Izena aurrez doan eman ahaliko da usurbilkultura.eus plataforman. Gehienez 15 laguntzako tokia egongo da Jakinmin-eko kide Garazi Aizpuruak bideratuko duen saioan.

"Galderak irekitzen du bidea"

Gogoan izan, "galderak irekitzen du bidea" dio esaldiak. Horixe da solasaldi filosofikoen muina. Solasaldi filosofikoa gai edo galdera jakin bati buruzko iritzi trukaketa irekiko gune gisa planteatzen da, betiere aniztasuna errespetatuz. Usurbilgo Oinherri eta Jakinmin elkarteak haurren solasaldi filosofikoen egitasmoa jarri zuen martxan joan zen ikasturtean. Arrakasta ikusirik, adin tarte zabaldu eta helduentzako zikloa ireki dute aurten".

Vachoca tailerraren segida

Apirilaren 25ean ekindako tailer artistikoari segida emango diote maiatzaren 6an eta 24an, 17:30-19:00 artean, Potxoenean. Lehenengo saioa etorkinei zuzendurikoa izango da, bigarrena herritar ororentzat. Elebidunak izango diren bi hitzorduotan 15 laguntzako lekua egongo da gehienez. "Etxea gaitzat harturik, tailer artistiko bat bideratuko da modu praktiko batean. Esperientzia honen bitartez etorkin eta herritar oro sormenarekin harremanetan jarri nahi dira. Bakar-kako zein taldeko ariketak egingo dira bertan. Proiektuan zehar ezagututako pertsonen egoerak kontatuko dira elkarri zikloa irekitzeko eta kontzientziakritiko eraikitzailea bultzatuz". Vachoca ("Vagabundo, chocolate, calcetín") izeneko tailer artistiko honetarako izena aurrez eman beharko da ganbara.sormentailerra@gmail.com helbidean.



Buztinarekin jolasean

Santuenea auzo elkarteak Usurbilgo Udalaren laguntzaz apirilaren 19rako antolaturiko saioa aste bete atzeratu eta egondako eskariari erantzuteko bi saio antolatzea erabaki zuen. Lehenengoa, iragan ostiralean egin zuten. Bigarrena, maiatzaren 3an, 18:00-20:00 artean, auzoko ludotekan (Santuenea 16an). Edukiera mugatu

tua izango duela ohartarazi dute antolatzaileek. Izena aurrez eman beharko da santueneaguretxikiak@gmail.com helbidean. Sarrera 3 eurokoa izango da, doakoa bazkideentzat. "Ez ahaztu mantal bat ekartzea eta zure artelana etxera eramateko kaxa bat! (tupper handi bat edo kartoizko kaxa txiki bat)".



Maiatzeko lehen bi asteburuetan jokatuko dira Usurbilgo Txapelketako final-zortzirenak.

Usurbilgo 51. Eskuz Binakako Txapelketa hastera doa

Ostiral honetan hasiko da Usurbilgo eskuz binakako pilota txapelketa. Kanporaketa sisteman jokatuko da eta finala uztailaren 2an jokatuko da, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Ondoko hauek dira aurtengo txapelketan parte hartuko duten bikoteak. Usurbildar bakarra dago lehiakideen artean, Xabier Santxo. Behar Zana Villabonako pilota taldeko Urruzolarekin osatuko du bikotea.

- Etxezarreta-Aranguren (Orereta).
- Altuna-Albeniz (Tolosa).
- Cestau-Erasun (Villabona).
- Alberdi-Aizpuru (Tolosa).
- Santxo-Urruzola (Usurbil: Pagazpe/Behar-Zana).
- Urkizu-Altuna (Hernani).

- Ituarte-Telleria (Lazkao).
- Orbegozo-Garmendia (Orio).
- Salaberria-Olaiz (Oiartzun).
- Olaetxea-Azpiroz (Iruztzun).
- Barbajero-Garatea (Atarrabia).
- Igoa-Irazustabarrena (Alegia).
- Canabal-Cordon (Iruña, Oberena).
- Garcia- Agirre (Iruña, Oberena).
- Astiz - Villanueba (Larraul-Burlata).
- Elizalde-Balerdi (Malerreka).

FINAL-ZORTZIRENAK

Ostiral honetan jokatuko dira aurtengo txapelketako lehen partidak. Finalaurdenetara sailkatzen diren bikoteek maiatzaren 24an eta 25ean jokatuco dute finalaurrekorako txartela.

Maiatzak 3 ostirala, 18:30:

Elizalde-Balerdi
Altuna-Albeniz

Ituarte-Telleria
Alberdi-Aizpuru

Maiatzak 4 larunbata, 18:00:

Olaetxea-Azpiroz
Orbegozo-Garmendia

Etxezarreta-Aranguren
Cestau-Erasun

Maiatzak 10 ostirala, 18:30:

Urkizu-Altuna
Barbajero-Galatea

Santxo-Urruzola
Canabal-Cordon

Maiatzak 11 larunbata, 18:00:

Salaberria-Olaiz
Astiz-Villanueba

Igoa-Irazustabarrena
Garcia-Agirre

FINALAURDENAK

Maiatzak 24 / 25.

FINALAURREKOAK

Ekainak 14 / 15.

FINALA

Uztailak 2 asteartea.

Kadete mailako Usurbilgo Txapelketa

Lau taldez osatutako bi multzo osatu dira. Ligaxkako partidak maiatzean jokatuco dira. Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuak finalaurrekoetara sailatuco dira. Finalaurrekoak ekainean jokatuco dira eta finala uztailaren 2an egingo da.

KANPORAKETAK

Maiatzak 3 ostirala, 18:30:
Pagazpe1-Tolosa (G.1)

Maiatzak 4 larunbata, 18:00:
Behar zana-Zazpi iturri (G.1)

Maiatzak 5 igandea, 11:30:
Pagazpe2-Azkoitia (G.2)
Lapke-Oiarpe (G.2)

Maiatzak 10 ostirala, 18:30:
Pagazpe1-Behar zana (G.1)

Maiatzak 11 larunbata, 18:00:
-Tolosa
-Zazpi iturri (G.1)

Maiatzak 12 igandea, 11:30:
Pagazpe2-Lapke (G.2)
Azkoitia-Oiarpe (G.2)



Ostiral honetan hasiko den txapelketaren finala uztailaren 2an jokatuco da.

Maiatzak 24 ostirala, 18:30:
Pagazpe1-Zazpi iturri (G.1)

Maiatzak 25 larunbata, 18:00:
-Tolosa
-Behar zana (G.1)

Maiatzak 26 igandea, 11:30:
Pagazpe2-Oiarpe (G.2)
Lapke-Azkoitia (G.2)

FINALAURREKOAK
Ekainak 14 ostirala, 18:30:
G1 (1. sailkatua)
G2 (2. sailkatua)

Ekainak 15 larunbata, 11:30:
G2 (1. sailkatua)
G1 (2. sailkatua)

FINALA: uztailak 2 asteartea.



Iaz Tolosan egindako Gipuzkoako Elhuyar Zientzia Azoka. ARGAZKIA: ELHUYAR.

Zientzia herriratuko duen azoka larunbatean

Gipuzkoa mailako Elhuyar Zientzia Azokak hartuko du frontoia larunbat goiz honetan, 11:00-13:30 artean. Zientzia plazaratu, herriratuko digute, alor horretan herrialdeko hainbat ikastetxeek, tartean, Udarregik landutako proiektuen aurkezpenekin.

Gipuzkoako hamasei ikastetxeek parte hartu dute egitasmo honetan. Elhuyarretik NOAA:ri aditzera eman diotenez, hamaika izango dira larunbateko azokara etorriko direnak; herrialdeko hamaika ikastetxeotako hamazazpi talde, hamazazpi proiektuekin. Parte hartzaileen erdia pasatxo neskek. Askotariko herri eta eskualdeak bilduko ditu zientziari eskainitako elkargune honek. Izan ere, Lasarte-Oria, Donostia, Beasain, Hondarribia, Orrio, Zarautz, Hernani eta Urretxu-Zumarragako ikastetxeetako gazteak erakarriko ditu. Haiekin izango dira etxeokoa ere; Udarregi ikastolako DBHkoak ere.

Antolatzaileen esanetan, "gazteek zientziarekin eta teknologiarekin bizipenakizan ditzaten, helburu horrekin egindako

ikasturteko prozesua da". Ikerketa galdera bat edo erronka teknologiko bat planteatzen zaie egitasmo honek parte hartzaile izaten dituzten 12-18 urte arteko gazteei "eta horri erantzuna nola emango lioketen landu behar dute", adierazi digu Elhuyar zientzia unitateko STEAM hezkuntza arloko arduradun Aitziber Lasak. Horretarako, "prozesua egiten dute bai, prozesu teknologiko edo metodo zientifikoarekin. Ondo

"DOKUMENTATU, HIPOTESIA PLANTEATU, ESPERIMENTATU ETA IRISTEN DIRA ONDORIOETARA"

dokumentatu, hipotesia planteatu, esperimendazioa egin eta iristen dira ondorioetara". Ibilbide horretan, zientzian jardunean dabilzan profesionalekin zuzenean harremanetarako aukera izaten dute, nortzuk eta nola lan egiten duten hurbiletik ikustekoa, hitz gutxitan, "erreferenteak sortzea" ere sustatu nahi du Elhuyarrek egitasmo honen bidez, eta hala, "zientzia desmitifikatu eta estereotipoak hautsi, zientzia zer den, zien-

ELHUYAR: "HARRITU EGIN GARA NOLAKO PROIEKTUAK EGITEN DITUZTEN GAZTEEK"

tzialariak zein diren, non eta nola lan egiten duten" ezagutaraztea, zientziak egunerokoa duen eragina eta egiten duen berebiziko garrantzidun ekarpena helaraztea. Eraikitako mitoak deseraikitzea ere sustatu nahi dute eta hori dena egitasmo honen bidez zabaldu. Izan ere, Elhuyarrek eginiko diagnosietan antzeman dutenez, "14-16 urte arteko gazteei galdetuta, normalean zientzialariei buruz denek dute ikuspegi bat; oso argiak eta langileak direla, pazientzia handikoak, buruar-giak. Hor egoten da muga, askotan, batez ere nerabezaroan, ez dira gai ikusten lanbide horietan aritzeko".

Hitz egin dadila zientziaz

Gazteontzat egitasmo hau "ahal-duntze eta autonomia ariketa bat da. Pentsamendu kritikoa ere lantzen da, estereotipoak hausten dira. Zientzia gizonetako jarduna dela, estereotipo horiek hausten dira berdintasunaren mesedetan. Ekarpena egiten diogu baita euskarari, azoka hizkuntza horretan egiten baita".

Gainerako azoken moduan, frontoira joan eta bertan egongo diren postuetan barrena osteratxoa egiteko gonbita egin digu Elhuyarrek. "Harritu egingo gara nolako proiektuak egiten dituzten gazteek", ziurtatu digu Lasak. Familia giroan haurrekin joateko deia egin du, frontoiko gazteak "haien erreferente izango direlako, zientzia hurbiltzeko garaian". Bide batez, egun horretan, bazkalorduan, "hitz egin dadila Usurbilgo etxeetan zientziari buruz", animatu gaitu.

Gipuzkoa mailako zientzia azoka honen bigarren edizioa izango da aurtengoa. Usurbilen egitea ez da nahigabe hartutako erabakia izan. Batetik, Elhuyar Fundazioak Osinaldea industriagunean du egoitza, "Udala Elhuyarren patrono ere bada". Horrez gain, baliagarria da Elhuyarrentzat azoka hemen egitea, "nolabaiteko lotura bat ere eraikitzen delako herriarekin".

Lau proiektu

Larunbateko azokara joaten zaretenok, frontoian herri ordezkartza aurkituko duzue. Izan ere, Udarregi ikastolako DBHko ikasleak izango dira bertan. Aldaketarik ez bada, lau proiektu aurkeztuko dituzte hitzordu honetan. Batetik, Usurbilgo udal eraikinetako kontsumo energetikoei buruz eginiko azterlana. Bestetik, airearen kalitatea neurtzen ere aritu dira, herriko puntu ezberdinetan kokaturiko landareen bidez, CSIC, estatuko ikerlan zientifikoaren kontseilu gorenarekin batera ari diren ikerlanaren baitan. Gainerakoan antzera, "proiektu erreala da, zientifikoki landutakoa" beraz, ikastolako zientzia irakasle Nerea Maiozek eta Joanes Txuekak azaldu diguten moduan. Eraikunde prestigiosu horretako zientzialariak izan dituzte bide-lagun, beraz. Elhuyarrekutzitako aparailuekin landareotan pilatzen joan diren metal astunen jarraipena egin dute. Landareok gero Nafarroako institu-

tu agroteknologikora helarazi dituzte. "Laginak hartu eta Bartzelonara bidali eta handik emaitzak bidali dizkigute". Badira landutako beste bi proiektu ere: argazki kamerabarru angertatzen dena erakutsi asmo duen "ganbera iluna" egitasmoa aurkeztuko dute. Azkenik, geure sisteman immunean eta egoera emozionalean eragiten duten "hesteetako mikrobioten proiektua".

Erakusleihoa

Duela hiru urte hasi ziren parte hartzen egitasmo honetan Udarregikoak. Gipuzkoako azoka honez gain, Euskal Herri mailan maiatzan egingo den urteroko Bilboko azokara joan izan dira ikastolakoak landutako zientzia proiektuak aurkeztera. "Erakusleihoa polita da ikastolan landutako proiektuak plazaratzeko", Maiozen esanetan. Gainera, erabat bat egiten du Udarregi alor honetan jorratzen ari den bidearekin. Izan ere, duela hiru urte STEAM

proiektuak lantzen dituzten zentroei emandako ziurtagiria jaso zuen Udarregik. Zientzia arlo ezberdinak uztartzen dituzten proiektuak lantzen dira horren bueltan. Ikasleek "zientzia bere osotasunetik ikusten dute", Txuekaren esanetan. "Arlo ezberdinetan ikasleek dituzten ezagutzak lotzeko modu bat da", Maiozek gaineratu duenez. Proiektu errealekin lan egiten dute, larunbateko azokan aurkeztuko dituztenek erakutsi moduan. "Emaitzak benetakoak dira, metodo zientifikoa baliatuta eskuraturikoak", irakasleok nabarmendu dutenez. Elhuyarretik sustatu nahi duten zientziari lotutako bizipenekin erabat bat datozen egitasmoak dira, beraz.

Zientzia ezberdinen arteko uztartzearekin batera, ikasleei ere askotariko kompetentziak lantzea ahalbidetzen die; teknologikoak edota linguistikoak. Izan ere, landutakoa aurkezten diete azoka hauetan haiengana hurbiltzen direnei. "Polita

da ikustea goizean zehar azalpenak ematerakoan zer nolako bilakaera izaten duten. Hasieran oso urduri, amaierarako soltuz ematen dituzte azalpenak. Bestalde, beste eskoletan zer egiten duten ikusteko aukera dute", Maiozek gogorarazi digunez. Horregatik, azokara joateko gonbita egin digute. "Hurbildu proiektuak ezagutzera. Egitasmo errealeak dira, herriarekin lotura dutenak", nabarmendu du Txuekak. Usurbilgo hitzordua ostean, maiatza amaierako Euskal Herri mailako Bilboko azokan parte hartuko dute Udarregikoek. Horrekin batera, urteotako proiektuak hobetzen segi eta sistematizatu asmo dituzte. Egitasmo honek ahalbidetzen dien erakunde arteko lankidetzan eta zientziari lotutako erreferenteak ezagutarazten segi nahi dute. Eskura duten oinarrizko STEAM ziurtagiria mailaz igotzeko lanketari helduko diote, gainera.

Praktika onak sustatzen: ORGANIKOA

- Erabili beti ontzi marroia
- Ontzia beti zintzilik: ez utzi lurrean
- Kirtenak udaletxeko bulegoan jaso ditzakezu, doan
- Poltsa konpostagarriak erabil daitezke, beti ere, ontzi barruan
- Plastikozko poltsak ez dira jasoko



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza z/g (udaletxea)
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus



DANTZA EGUNA, IRUDITAN



Dantza Eguneko tranpaldo irekian parte hartu zuen artista taldea.



Dantza giro betean murgildu zen larunbatean herria Orbeldikoen eskutik.



12. Dantza Eguneko irudi bilduma noaia.eus atarian duzue ikusgai.



Usurbilgo herri nortasuna kokatu zuen erdigunean "Borobil" herri ikuskizunak.



Euskaraz bizitzeko aldarria plazaratu zuen dantzari belaunaldi gazteenak.



Borroka feministari gorazarre egin zioten "Borobil" herri ikuskizunean.



"Borobil" ikuskizunean, Usurbil ezagutzera etorritako bi bisitariak.



"Borobil" herri ikuskizuna plazaratzea ahalbidetu zuen lan-talde zabala.



Agurtzane Solaberrieta alkateak eta Miguel Angel Gastelurrutia botikarien elkargoko lehendakariak sinatu zuten hitzarmena.

Hitzarmena, botiken tratamenduak jarraitzeko zailtasunak dituztenei laguntzeko

Hitzarmena sinatu zuten apirilaren 24an Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako botikarien elkargoak, botika bidezko tratamenduei eusteko zailtasunak dituztenei laguntzea xede izango duena.

Duela hamalau urtetik indarrean den lankidetzaren esparrua indartzeko apustua egin dute bi aldeek. Izan ere, hitzarmen honen helburua, orain arte herritarren artean eragindako onuraren estaldura handitzea da.

Hala adierazi zuten sinatzaileek; Usurbilgo Udalaren izean Agurtzane Solaberrietak eta Gipuzkoako botikarien elkargoarenean, haren lehendakari Miguel Angel Gastelurrutiak. Biek ala biek nabarmendu moduan, lankidetzaren honen helburu nagusia, botiken tratamenduak jarraitzeko

zailtasunak dituzten herritarrak laguntzea da. Hobekiago esanda, laguntzen jarraitzea, ez baita egitasmo berria, baina indartu egingo dute aurrerantzean. Orain arte, modu pribatuan egin zitezkeen erabilera gain, gizarte zerbitzuek kudeaturiko etxez etxeko zerbitzuko erabiltzaileak ziren programa honen onuradunak. Aurrerantzean, ordea, haiez gain, lankidetzaren hitzarmenaren sinatzaileek azaldu zuten moduan, "etxez etxeko zerbitzua jasotzen dutenez gain, prestazio ekonomiko baten bidez zaintzaren bat jasotzen

ari diren herritarrak edo beselako gizarte zerbituetako zerbitzu batzuk jasotzen ari diren herritarrak" izango dira onuradun berriak.

Medikamentuen erabilera egokia
Programa hau doakoa da eta noski hautazkoa, borondatez

PROGRAMA DOAKOA DA ETA BORONDATEZ PARTE HARTZEKO MODUKOA

parte hartzeko modukoa. Gizarte zerbitzuen bidez berri emango zaie egitasmo honen berri erabiltzaileei. Parte hartu nahi dutenen kasuan, gizarte zerbitzuen bidez abiatuko litzateke interesdunen atxikimendu prozedura. Gero, Usurbilgo farmazietan segiko luke. Izan ere, Iturralde eta Amenabar farmaziak ere egitasmo honen sustatzaileak dira. Solaberrietak zioen moduan, "erabiltzaileek edo haien ordezeko legalek, aukeratu behar dute zer farmazietan parte hartu nahi duten programan eta gizarte zerbitzuetatik emango zaion oniritzi orri bat aurkeztu behar du". Hortik aurrera, farmazien lana hasiko litzateke.

Pozarren agertu zen lankidetzaren hitzarmen honen sinatzaileek Gipuzkoako botikarien elkargoko lehendakaria. Garrantzitsutzat jotzen egitasmo hau, botikak kudeatzeko zailtasunak dituzten pertsonen bizimodua hobetzen laguntzen duelako. "Gure helburua, medikamentuetarako sarbidea bermatzea da, baina baita pauso bat gehiago eman eta ondo erabiltzea, esperotako emaitza izatea, osasunean eragitea". Pozik agertu zen, egitasmo honen onuradun izan daitezkeen esparrua handituko delako.

Ildo horretan, herriko farmaziek izango duten egitekoa nabarmendu zuen. "Zortea duzue egokitu zaizkizuen farmazeutikoekin". Haiek izango dira, tratamenduei segida emateko zailtasunak dituzten herritarrak bidelagunak, laguntza eskainiko dutenak. Programaren onurak gizarteratzen laguntzeko prestasun osoa adierazi zuen Gipuzkoako botikarien elkargoko lehendakariak Potxoenero agerraldian.

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTA PAX 7, 650 31 31 91

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairu arteak...
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867



"Sortzaileen eremua zabala da eta katalogoaren bitartez sortzaile diren guztien bilduma osatu nahiko genuke".

"Usurbilgo Sortzaileen Katalogoa ez da erakusleiho soil bat izango"

ANTTON ARANBURU, LUKEN ARKARAZO ETA MAIALEN IÑARRA KULTURGUNEKO KIDEAK

Usurbilgo Kulturguneko kideak sortzaileen katalogo digital bat osatzen hasi dira. Galdetegi bat banatu dute sortzaileen artean eta jasotako informazioarekin fitxa bana egingo zaie.

Usurbilgo Sortzaileen Katalogoa sustatzen ari zarete. Zeintzuk dira ekimen honen helburuak?

Antton Aranburu: Kulturgunearen baitan, herriko beharrak aztertu eta gero, sortzaileen-tzako plazen beharra nabarmendu zen. Plaza fisikoak eta plaza digitalak. Euskarri digitaletik tiraka, herriko sortzaileen katalogo bat osatzea erabaki zen: herriko sortzaileei ikusgarritasuna emateko, antolatzaileei eskaintza bat eskura ipintzeko...

Maialen Iñarra: Herriko sortzaileen inguruko bilduma bat osatzea da helburua, eta bildumari ikusgarritasuna emateko plataforma digital bat sortzea.

A.A.: Erakusleiho moduko bat.

M. I.: Herri honetan sortzaileen handia dago. Diziplina ezberdinetakoak gainera: musika, dantza, arte plastikoak, argazkigintza... Eremua zabala da eta ekimen honen bitartez sortzaile diren guztien bilduma osatzea gustatuko litzaiguke.

Era honetan, aitortza bat egin nahi zaie. Eta bestetik,

"KATALOGOA ERABILGARRI IZATEA NAHIKO GENUKE HERRIKO ERAGILENTZAT ZEIN ANTOLATZAILEENTZAT"

sortzaileen bilduma bat herriarren eskura jarri nahi da.

Dena den, ez dugu ikusgarritasuna bakarrik bilatzen. Zerrenda hori erabilgarri suertatzea gustatuko litzaiguke, batez ere kultur eragileei nahiz antolatzaileei begira. Norbaitek pentsa lezake askotan antzeko aurpegiak daudela ekimen guztietan, baina kul-

"SORTZAILEEK UNEAN UNEKO ESKAINTZAREN BERRI EMATEKO AUKERA IZANGO DUTE"

tur sortzaileen zerrenda anitza denez, denen eskura jarri nahi dugu katalogoa, sortzaile guztiek eskaintzeko duten hori plazaratzeko aukera izan dezaten.

Luken Arkarazo: Hor dago gure ahaleginaren berritasunik handiena. Beste herri batzuetako katalogoekin alderatuta, Usurbilgoa ez da zerrenda soil bat izango, segituan zahartzen den horietakoa. Zerrendan dauden horiek une jakin horretan zer ari diren eskaintzen azaltzeko aukera izango dute.

Sortzaile bakoitza gaur egun egiten ari den eskaintza nabarmen-tzeaz gain, informazio praktikoa ere eskainiko du, ezta? Baten batek ipuin kontalari bat kontratatu nahi badu, katalogoan topatu ahal izango du kontaktua.

A. A.: Eta ipuin kontalariaren saioa girotzeko musikari bat behar badu, edo soinu teknikari bat, hori dena eskuragarri izango du katalogoan.

Ekitaldiaren kartela egin behar badu, diseinatzailea ere bertan topa dezake? Halakoak ere sormenaren eremuan sartzen dira.

L.A.: Noski. Une honetan 60 bat sortzaile zerrendatuta ditugu, euren diziplinaren arabera sailkatuta. Gehienekin lehen harremana egin dugu eta galdetegi bat erantzuteaz gain, euren informazioa osatzeko materiala eskatzen diegu: biografia, fitxa teknikoak, argazkiak, bideo-klipak, eskaintako elkarrizketen linkak...

A. A.: Zer nolako premiak dituzten ere jakin nahi dugu, eta horrelako galderak ere badira galdetegiaren amaieran.

M. I.: Gu herri ikuspegi batetik ari gara lanean baina katalogo digital hau kanpoko beste herri batzuetako antolatzaileen-tzat ere pentsatuta dago. Usurbilgo sortzaileen berri izateko modu bat eskaini nahi diegu. Era berean, Euskal Herri mailan dauden beste katalogo batzuk elikatzeke balia daitekeen informazioa da gu batzen ari garena.

→ **Sortzaileen artean deialdirik egin duzue ala zuek ari zarete banan bana euren gana jotzen?**

M. I.: NOAAU!ri eskainitako elkarrizketa hau baliatu nahi dugu horretarako. Gerta daitekeelako guk dugun zerrendan denak ez egotea.

Kasu horretan, sortzaileak zer egin beharko luke? Nola jarri daiteke zuekin harremanetan?

A. A.: Interesa dutenek Kulturgunera jo dezatela sare sozialetan bidez edo emailaz, usurbilgokulturgunea@gmail.com posta elektronikora idatziz.

Epeei dagokionez, katalogoa saretzeko data zehatzik ba al da?

M. I.: Ez. Katalogoa osatzen ari garen bitartean, Udalarekin ari gara aztertzen ea zein plataforma izan daitekeen egokiena katalogo honentzako.

A. A.: Epeak zehaztu gabe dauderandik.

M. I.: Hori bai, sortzaileen inguruko informazioa ekainera arteko epean batu nahiko genuke. Bide batez, bestelako galderak ere egiten ari gara. 'Kultura Eskolan' balizko programan parte hartuko luketen, adibidez. Hau Usurbilgo Kulturgunearen hurrengo asmoa litzateke.

Proiektu honen inguruko xehetasun gehiago aurreraterik bai?

L. A.: Marko teorikoa zehaztu genuenean, bi helburu nagusi zituen Kulturgunek. Herriko kultur ekosistemaren beharrak asetu, batetik; euskal kulturzaleak sortu, bestetik.

Kulturzaleak sortzeko, lan leerro ezberdinak elikatu behar dira aldi berean: Sormena, Plaza, Komunikazioa eta Transmisioa. Eta transmisioa bereziki garrantzitsua da, eremu guztietan landu behar dena: etxean, eskolan, kalean... Hezikuntzaren gudu-zelai horretan kokatzen da 'Kultura Eskolan'.

Euskal sortzaileak ikaste-txeetan dabilta euren sormenaren berri ematen eta nahi



"Elkargunea espazioak Usurbilgo Kulturgunearen lan ildo guztiak kolpetik asetuko lituzke: Komunikazioa, Sormena, Transmisioa, Plazak".

ko genuke horrelako zerbaite egitea, baina 'Made in Usurbil'. Zer da indartsuagoa zure ondoko portalean bizi diren horien erreferentziak jasotzea baino? Udarregira, Zubieta eta Aginagako eskoletara, AE-Kra... eraman nahi ditugu gure herriko sortzaileak, zer egiten duten azaltzeko aukera izan dezaten. Eta katalogoaren inguruko galdetegiak baliatzen ari gara 'Kultura Eskolan' programaz galdetzeko.

M. I.: Batetik hori dago, eta bestetik eragileei zein antolatzaileei begira halako irizpide batzuk zehaztu nahi dira. Herriko sortzaileak kontratatzerakoan, kontuan hartu

beharko liratekeenak. Boluntario eta profesional arteko muga hori lausoa da askotan eta herrikoak direnean are gehiago. Sortzaileen artean banatzen ari garen galdetegiaren bitartez, sortzaileen eskutik jakin nahi dugu zer nolako zailtasunak izan dituzten herrian kontratatutak izan direnetan. Informazio hori jasota, akaso protokolo moduko bat finkatu genezake.

L. A.: Denek adostutako gutxienezko irizpide batzuk.

M. I.: Eragile zein antolatzaileen artean, pedagogia lan bat egitea ere badagokigula uste dugu.

"INTERESA DUTEN SORTZAILEEK KULTURGUNERA JO DEZATELA SARE SOZIALEN BIDEZ EDO EMAIL BAT IDATZIZ"

"ELKARGUNEAN USURBILGO GAZTE MUGIMENDU OSOAREN EKOSISTEMA DAGO ISLATUTA"

Kulturgunea ez ote den Elkargunean disolbatu. Antzeko hausnarketa egin zidan duela egun gutxi herriko sortzaile batek. Katalogo egitasmo hau ordea, Kulturgunea bizirik dagoen seinale argia da.

A. A.: Kulturgunek bere dinamika propioa izaten jarraitzen du baina egia da azkenaldian katalogoa lantzen ari garela eta gainontzeko indar guztia Elkargunean ipini dugula.

M. I.: Iazko azaroan, Usurbilgo kultur ekosistema osoari dei egin eta gero, 'batzar orokor' bat egin genuen. Ekimen ezberdinak planteatu ziren eta aurtengo ikasturteari begira bi lan nagusi hauek ezarri genituen: katalogoa garatzea eta Elkargunearen parte-hartze prozesuan inplikatzeko.

Elkargunearen inguruko parte-hartze prozesuan murgilduta zaudete hirurak. Balorazio azkar bat egingo al zenigukete?

M. I.: Oso aberatsa izaten ari da. Herri ikuskeratik, oso proiektu garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Kulturgunek identifikatuta dituen lan ildoak (Komunikazioa, Sormena, Transmisioa, Plazak) kolpetik asetu ditzakeelako. Espazio berri horretan gainera, gazteekiko konexioa oso natural egingo da. Areto bat aurrikusten delako bertan, sormen-guneak...

A. A.: Gogoan izan behar dugu gazte mugimendu osoaren ekosistema hor dagoela islatuta: Gazte Asanblada, Ziortza, Gaztelekua, Kulturguneko kideak...

L. A.: Dagoeneko ari gara denon artean harremanetan. Eta hori, bere horretan, sekulakoa iruditzen zait. Eta gainera, orain arteko bilerak oso aberasgarriak izan dira. Bilera erabakigarrietara iritsi gara eta denak elkarrekin goazenaren sentazioa dugu, talkarik gabe. **A. A.:** Maiatzaren 18an izango da Elkargunearen hurrengo bilera eta hurrena ekainaren 15ean.



Usurbil Kirol Elkartea taldearekin jokatzear gain, Euskadiko Selektzioan ere aritzen da.

"Usurbil KE eskubaloi taldean laguntasuna eta kirola eskutik doaz"

MADDI ORBEGOZO ESKUBALOI JOKALARIA

Eskubaloian aritzen da Maddi Orbegozo beste usurbildar asko bezala. Usurbil Kirol Elkartea taldean dihardu eta, gaur egun, Euskadiko Selektzioarekin dabilen herriko neska bakarra da. NOAUA!rekin izan da kirolaria bere esperientzia partekatzeko.

Denbora eta energia asko eskaintzen diozu eskubaloari?

Usurbilen astean bitan izaten ditugu entrenamenduak. Gure kasuan, asteazken eta ostiralean. Entrenamendu bakoitza ordu eta erdikoa izan ohi da. Horrez gain, asteburuetan partidua izaten dugu astero. Batzuetan etxean tokatzen da, eta beraz, denbora gehiago aurrezten dugu beste norabait joan beharra daukagunean baino. Euskadiko Selektzioaren kasuan, bi astetik behin izaten ditugu entrenamenduak. Kasu horretan, entrenamenduak ez dira beti leku berean izaten. Bizkaian izaten dira batzuetan, eta bestetan Gipuzkoan. Oso gutxitan

izaten bada ere, noizean behin Araban ere tokatzen da. Gurasoek eramaten naute entrenamendu horietara normalean, baina ezin dutenean, Zarauzkoekin moldatzen naiz.

Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra al dago?

Ez dut ezer berezirik egiten, edo ez behintzat lehen egiten ez nuenik. Hala ere, batzuetan ariketakematen dizkigute etxean egiteko. Astean pare bat aldiz egiteko plan bat prestatu ziguten 13 ariketaz osatua. Horiek geure kabuz egin behar ditugu. Usurbilen entrenamenduak amaitzean, tartetxo bat hartzen dut ariketa horiek egiteko.

Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikit. Noiz egin zenuen eskubaloaren aldeko hautua?

Euskal dantzak ere egiten ditut. Lehenago, atletismoan ere ibiltzen nintzen herriko taldean. Lagunekin joan ohi nintzen, baina eskolaz kanpoko ekintza

"INTENTSITATE GEHIAGOKO ENTRENAMENDUAK IZATEN DIRA EUSKAL SELEKZIOKOAK"

askotan sartzen gara txikit, eta pixkanaka gauzak utzi beharra dago. Lagunek atletismoa uztea erabaki zuten eta nik ere bide hori aukeratu nuen.

Euskal Selektzioarekin aritzen zara. Lehiakortasun handia dago taldekideen artean ala lagun giroan entrenatzen al duzue?

Nik naturaltasun osoz bizi dut egoera hori. Taldekideak laguntzat ditut eta ahalik eta gehien jokatzen saiatzen banaiz ere, beste norbaitek jokatzen duenean nik beharrean, ez dut gaizki hartzen. Denok behar dugu aukera jokatzeko. Ez nau mintzen edo haserretzen.

Eta nolako da beste taldeekiko harremana? Kanpotik ikusita, eskubaloia munduan giroa sanoa dela ematen du.

Bai, hala dela esango nuke. Denon helburua da irabaztea eta horretarako bakoitzak bere jokua egiten du eta taktikak prestatzen ditu helburua lortzeko asmoz. Beti ezin da irabazi, eta horrek ez du justifikatzen inor iraindu edo mintzea. Helburuak jarrita horiek lortzea da asmoa, baina ezin bada, hurrengoan izan beharko du. Ez dugu inoiz arazorik izan inorekin, zentzu horretan. Arbitroekiko desadostasuna agertzen dugu askotan geure artean, baina hura ez dugu iraintzen.

Usurbilen jokatzetik Euskal Selektzioarekin aritzera jauzia dago. Erraza izan al zen egokitzapena?

Ondo ari naiz moldatzen aldaketa horietara. Egia da jauzia handia dagoela, hori ez dago ukatzerik. Herriko taldean laguntasuna eta kirola eskutik doaz, eta entrenatu bitartean hizketan aritzen gara. Selektzioan hori ezin dugu egin. Harreman pertsonalak lantzen ditugu, baina kantxatik kanpo izaten da. Entrenamenduan gauden bitartean horretan egon behar dugu buru-belarri eta hizketarako tarteak gerorako utzi behar izaten ditugu. Zentzu horretan, intentsitate gehiagoko entrenamenduak izaten dira selek-

→ ziokoak. Partiduen kasuan, galtzea ez zaio inori gustatzen ez Usurbilen, ezta selekzioan ere. Irabazteko gogoz joaten naiz partidu bakoitzera arerioa dena delakoa izanda ere. Hala ere, neure burua ez dut gehiegi presionatzen. Neure onena ematen saiatzen naiz bai taldean, bai selekzioan arerioa edozein izanda ere. Gabonetan Katalunian izan nintzen selekzioarekin eta sei partidu jokatzeko aukera izan nuen. Lehena irabazi egin genuen, Murtziaren aurka. Bigarrena, ordea, galdu Aragoiren aurka. Horrek ez zigun aukera eman txapelketan sartzeko. Beraz, kopa jokatu genuen. Asturias eta Valentziaren aurka jokatu genuen, beraz. Valentziaren aurka irabazi eta Asturiasen aurka galdu. Orduan, gauza bera gertatu zitzaigun. Ezin genuen lehen postuen borroka horretan sartu. Errioxaren aurka jokatu genuen, azkenik eta irabazte lortu genuenez, bosgarren egin genuen kopan eta hamahirugarren sailkapen orokorrean. Ezzen nahiguen bezain ondo atera, baina txapelketak horrela izaten dira. Usurbilen kasuan, ligan bosgarren gaude hamahiru taldetik. Oraindik lan egin behar du guztiak bitartean emaitzak hobetzeko.

Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek? Nik eskubaloian ez daramatzat horrenbeste urte, eta beraz, ikasketa prozesu betean nago. Entrenatzaileengandik jasotzen dugun inplikazioa ederra da eta atzematen da ondo jokatzeko irakatsi nahi digutela bai teknikoki eta baita taktikoki ere. Akatsak zuzentzen dizkigute, baina ez bronka botata. Zuzenketa guztiak errespetuzkoak izaten dira eta azalpenetan oinarritzen dira. Horrek laguntzen du ondo sentitzen ibilbide horretan. Eskubaloia gustuko izan dut kirol hau probatzeko aukera izan nuenetik, eskola kirolaren baitan lehen urte horietan. Behin eskuba-



"Oraindik lan egin behar du guztiak bitartean emaitzak hobetzeko".

loian zentratuta, entrenamenduak serio hartzen hasi nintzen eta hori mantentzen saiatu naiz orain arte. Neure burua hobetzen saiatzen naiz uneoro eta exijentzia ere jartzen diot betiere hobekuntza hori bilatu nahian.

Eskubaloian, Usurbilek tradizio handia du. Kabia garrantzitsua izan da, ezta?

Euskadiko selekzioan momentu honetan ni naiz Usurbilgo neska bakarra. Lehenago ere asko izan dira, baina orain ni bakarrik nago. Mutilen artean jokalarik gehiago daude eta entrenatzaile lanetan ere bada-

"EUSKAL SELEKZIOAN MOMENTU HONETAN NI NAIZ USURBILGO NESKA BAKARRA"

biltza herritarrak. Nire taldean horrekin lotzen dute Usurbil, jokalarik kopuruari lotuta eta entrenatzaile figura horrekin. Nire taldean Zarauzko hiru jokalarik daude, San Adriango bi, Zuazoko bi eta gainontzekoak indibidualak gara. Hau da, gure klubetik gatozen bakarrak gara gainontzekoak.

Etorkizunean, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua?

Kirola egitea gustatzen zait eta horri lotuta jarraitu nahi nuke. Goi-mailako kirolean urte asko ematea zaila iruditzen zait, jende asko baitago arlo horretan. Ikasketek begira, zientzien arloa gustatzen zait gehien eta bide horiek hartuta, agian, bi arloak uztartzea zail egingo zait urte batzuen buruan. Asmoa da ikasketak eta kirola paraleloan eramatea posible den bitartean, eta gero, ikasketak lehenetsi behar ditut. Hala ere, ez dut uste kirola erabat inoiz albo batera utziko dudarik.



Laburrean

Zenbaki bat:

97, eskubaloian nire zenbakia.

Kolore bat:

Urdina.

Miresten duzun kirolari bat edo entrenatzaile bat:

Maitane Etxeberria.

Zurea ez den kantxa bat edo jolasleku bat hauta ezazu:

Lubaki kiroldegia.

Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:

Campeones.

Liburu bat aholkatuko diguzu?

Ametz Arzallus Antia eta Ibrahim Balderen *Miñan* (Susa).

Zein da zure abestirik gogokoena?

Elektrizitatea (Zea Mays).

Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?

Instagram.

Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.

Sutegi azpiko zonaldea.

Santixabelak ala Sargardo Eguna?

Santixabelak.

Oporretarako toki bat.

Polinesia Frantsesa bisitatzea gustatuko litzaidake.



"Helburu nagusia mugikortasun segurua eta irisgarria bermatzea da".

EAJ: "Segurtasuna eta irisgarritasuna bermatu beharreko oinarrizko eskubideak dira"

San Inazio kalearen eta Aitezarra kalearen artean oinezkoentzako ibilbide segurua sortzeko eskatu du berriro alderdi jeltzaleak, Zelai Haundi zeharkatuz.

San Inazio kalearen eta Aitezarra kalearen arteko segurtasun falta kezka iturri da EAJko kideentzat. Ez da berria. Iaz, antzeko eskaera egin zuten eta proposamena luzatu dute berriro, "udalerriko oinezkoentzako segurtasuna eta irisgarritasuna nabarmen hobetzeko" helburuarekin.

Segurtasun arazoak arintzeko, hauxe da alderdi jeltzaleak egin duen proposamena: espaloiak zabaltzea eta zebra-

bide berri bat margotzea. "Helburu nagusia da mugikortasun segurua eta irisgarria bermatzea erabiltzaile guztientzat", era honetan, "Usur-

ESPALOIAK ZABALTZEA ETA ZEBRABIDE BERRI BAT MARGOTZEA PROPOSATU DU

bilgo bizi-kalitatea nabarmen hobetuko litzateke". Hala jasoa dator NOAUara igorri duen prentsa-oharrean.


12.000 euroko inbertsioa

Obra egiteko 12.000 euroko inbertsioa egitea aurreikusi da. Horri esker, oinezkoentzako ibilbide segurua gauzatu ahal izango da, "EAJ-PNVk udalerriko bide-segurtasunarekin eta irisgarritasun uni-bertsalarekin duen konpromisoa azpimarratuz".

Lehendik ere antzeko eskaera egin zuen EAJk. "Aipatzekoa da proposamen hori 2024ko aurrekontuei emendakin formatuan egin zitzaizela, baina EH Bilduren udal gobernuak ez zuela onartu".

"Pena da 2024ko aurrekontuetan jaso ez izana"

Usurbilgo EAJ-PNVko bozeramaile Xabier Otxoak adierazi du usurbildarren segurtasuna bermatzeko asmoa duela: "Proposamen hau Usurbil seguruago eta guztiontzako irisgarriago bat lortzeko aurrerapausoa da. Pena da 2024ko aurrekontuetan sartu ez izana, baina lanean jarraitzen dugu, eta gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetuko duten proiektuak defendatzen. Segurtasuna eta irisgarritasuna gure udalerrian bermatu beharreko oinarrizko eskubideak dira".



Garbitaniaren lan deialdiak

Honako lan deialdiak plaza-ratu ditu Garbitaniak:

Bi administrari:

Ekonomia, finantza eta giza-baliabideen arloan laguntzeko bi administrari kontratatzeko eta lan-poltsa eratzeko hautaketa prozesua. Baldintzak:

- 16 urte beteak izatea.
- Batxilergoa egin izatea, administraritzan Lanbide Heziketako gradu ertaina edo baliokidea izatea.
- Kontabilitate eta nomina formazioa.
- 3. hizkuntz eskakzuna, EGA, C1 edo baliokidea den titulua izatea.
- Lan-poltsa: Hautaketa prozesua gaingitzen duten izangaiek lan-poltsa eratuko dute, lortutako puntuaren arabera.
- Eskabideak: maiatzaren 13a baino lehen.

Gidari-biltzaileak:

Gidari-biltzaileen ordezkapenetarako premiazko lan-poltsa. Bete beharreko baldintzak:

- 16 urte beteak izatea.
- Eskola-ziurtagiri edo parekoa den titulazio maila izatea.
- C gidabaimena edo baliokidea izatea.
- Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiria izatea.
- Eskabideak: maiatzaren 10a baino lehen.

Informazio gehiago:

garbitania.eus

Txirikordaren herri-inaugurazioa, maiatzaren 10ean

Ugartondoko belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa bizilagunetz bete da azken asteotan. Orain, herriari irekitzeko ordua heldu da. Txir-

rikordaren inaugurazio ekitaldi irekia, maiatzaren 10erako iragarri dute bertako bizilagunek eta Udalak. Arratsalde partean egingo da.

"Usurbildar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira: jolasak, musika eta janariaz gain, Txirikorda barrutik ezagutzeko aukera eskainiko dute".



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukaldea. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Usurbil edo inguruetan, garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz, behala hasteko moduan 74745055

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. Orduka zein interna aritzeko aukerarekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzaileria behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurlaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 artean, 632157186

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aulkia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

ZORION AGURRAK



Zorionak Aitor eta Gorka!!

Apirilaren 18an 13 urte egin zenituzten. Bizitzan gertatu zaidan gauzik ederrena zarete zuek biok. Zorionak eta muxu handi bana!!



Zorionak Nora!

Maiatzaren 2an egingo dituzu 7 urte. Muxu potolo-potolo bat etxekoan partez eta ondo pasa!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 02	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 03	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 04	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 05	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Astelehena, 06	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Asteartea, 07	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteazkena, 08	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Osteguna, 09	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 10	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 11	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 12	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

HILDAKOAK



Angel Iturralde Muguruza
Apirilaren 23an hil zen,
75 urterekin

HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotakoak emango ditugu argitara.
- ▶ Gainontzekoak, hurrengo asteko astekarian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 03

SANTUENEA "Buztinarekin jolasean" tailerra

Aurrez eman behar da izena, santueneaguretxikiak@gmail.com helbidera idatziz. Prezioa: 3 eurokoa izango da, bazkideek doan. 18:00 Santueneko ludotekan.

USURBIL Olatz eta Iñaki Salvadorren kontzertua

Sarrerak 8 eurotan salgai, aldeaz aurretik usurbilkultura.eus plataforman edo Lizardin. 19:00 Sutegin.

LARUNBATA 04

USURBIL Elhuyar Zientzia Azoka

11:00-13:30 Usurbilgo frontoian.

TXOKOALDE Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa

Txokoaldeko ibilbideko "istorio misteriosuak" kontatuko ditu. 17:00 Txokoargi elkartearen.

AGINAGA Kontzertu-gaia

Loita Amada, Rukula eta Zaparra taldeekin. 22:30 Eliza Zaharrear.

IGANDEA 05

USURBIL Andatza Eguna

Goizean zehar, pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da Andatzako bordan. 12:30ean, taldeko argazkia. Goiz partean, Andatzan.



"Herritar guztioi Andatzara igotzeko gonbita egin nahi dizuegu".

Andatza Eguna ospatzeko garaia iritsi da

"Usurbilgo herritar guztioi Andatzara igotzeko gonbita egin nahi dizuegu. Zirimarako familia planean edo, norbera, bere kaxa, nahi duen bide eta lagunekin. Behin Andatzara igotakoan, denok argazkia atera eta elkarrekin dantzatu edo salda eta pintxoak hartzeko aukera izango da. Giro ederra egongo da aurten Andatzan! Animatu!", egin dute gonbita antolatzaileek. Maiatzeko lehen igande honetarako hauxe da prestatu duten egitaraua.

Maiatzak 5, igandea

- 9:30 San Estebango plazatik hasita Zirimararen familia plana. "Familia giroan, Andatzako igoerari emango diogu, ibilbidean zehar zenbait jolas eginez. Behin gora igota ere jolas batzuk egingo ditugu". Goizean zehar, pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera.
- 12:30 Argazkia Andatzako bordaren parean.
- Antolatzaileak: Ibai-ondo elkarte eta Zirimara.
- Babesleak: Saizar Sagardotegia eta Usurbilgo Udala.

Ixabel Agirresarobe Txokoargin

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak Txokoaldeko ibilbideko "istorio misteriosuak" kontatuko dizkie bertaraten diei hurrei. Larunbat honetan, hilak 4, arratsaldeko 17:00etan. Sarrera, doan.

Odol-ematea

Datorren saioa maiatzaren 6an izango da, 16:30-20:10 artean, Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela hona: 943 007 884.

Itzulia Women Usurbildik igaroko da

Azken etapa, Donostian hasi eta amaituko dena, Usurbildik igaroko da. Aurreikusituz, "etapa erabakigarria izango da. Ibilbideak Donostiako Klasikoa simulatuko du; izan ere, Lezotik Jaizkibelera igoko da, eta, bukatzeko Murgileko hormatik gora egingo du Mendizorroteraino. Oriora eta ondorengo kilometroetan Donostiara jaistea helmugara iritsi eta sailkapen orokorrean garaipena eskuratzeko banakako erlojupekoa izango da".

ARANKA
BERRIKUNTZAK

· Fatxaden estaldurak · Estalkien berritzateak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra

606 37 21 05 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22

943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra


693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

NOAUA!k UDALEKU IREKIETAN aritzeko HEZITZAILE eta ZUZENDARI lan poltsa DEIALDIA

LEHENETSIKO DA:

- Begirale
- edo zuzendari titulua izatea
- EGA izatea
- Usurbildarra izatea

Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Usurbil edo
elkartea@noaua.eus

- *Sexu delituen ziurtagiri eguneratua bidali*
Curriculum-arekin batera
bidaltzeko azken eguna: maiatzak 10

noaua




IMFPB USURBIL OLHUI

Oinarrizko Lanbide Heziketa

sukaldaritza
eta jatetxea

ile-apainketa
eta estetika



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURREMATRIKULA

Epea Maiatzaren 6tik 24ra. (biak barne).

Tokia Atallu. Zanpiura, 3

Telefonia 943 36 04 65

Posta lhi@usurbil.eus

aurrematrikulazioa webgunetik egiteko aukera!
olh.usurbil.eus

• 15-17 urte bitarteko gazteak
Eskura dezakete:

- DBH Graduatua
- Sarrera zuzena erdi-mailako zikloetara
- Lan - munduratzeari. Profesionaltasun ziurtagiria, 1



olh_usurbil